

## OHARRA

Hamazazpi hilabete igaro dira XIII. Hondarribia Blues Jaialdia itxi zenetik, eta ikusirik Udalak ez duela ezertxo ere egin, HBJko zuzendari eta Blue Vision S.L. enpresa antolatzaileko arduradun naizen aldetik, ekitaldia bertan behera uzteko benetako arrazoiak argitu nahi ditut; esan diren faltsukeriak gezurtatu nahi ditut eta nire zintzotasunari buruzko edozein zalantza uxatu nahi dut, ez bakarrik azken edizioan, baizik eta aurreko hamabietan ere. Ez dut adierazpenen gerra batean sartzeko asmorik, eta horrenbestez, gertatutakoa ahalik eta argien eta behin azaltzen saiatuko naiz, jatorritik hasita.

## ALDAKETA KUDEAKETA EREDUAN

2017an, Udalak Jaialdia kudeatzeko behar adinako arintasunik ez zuenez, erabaki zen 2018ko jaialdia antolatzeko lana berriz ere kanpoko enpresa bati ematea, Blue Vision S.L. enpresari, hain zuzen ere. Formula hori erabili zen lehen zazpi edizioetan ere. Horiek horrela, beharreko denboran eta forman, aurkeztu nituen programa proposamen zehatza eta aurrekontua.

2017. urteko abenduan, Udalbatzak hurrengo urterako aurrekontua onartu zuen 280.000 euroko kontu sailarekin HBJrako “diru izendapen izendun” gisa. 2018ko uztailean, lehiaketa oso arrakastatsua izan zen, aurreikusitako programa osoa bete zen eta Udala erabat gustura geratu zen, alkateak komunikabideei adierazi zien bezala. Onartutako kapitulu bakar bat ere ez zen bete gabe utzi, eta gastu guztiak behar bezala justifikatu ziren azken zentimora arte faktura bidez, salbuespenik gabe.

## ALDAKETA UDALAREN IRIZPIDEAN

2018ko azken hilabeteetan, Udalaren irizpidea aldatu egin zen beste txosten tekniko batean oinarrituta. Txosten horrek bi alderdi garrantzitsu hartzen ditu kontuan: batetik, dirulaguntza ez zela izenduna izan behar, eta ez zela baldintza horietan onartu behar, eta, bestetik, ordainketak egin ondoren bakarrik ordain zitekeela dirulaguntza.

Hau da, jaialdia amaitu eta hainbat hilabetetara, eta profesional guztiok geure lana behar bezala eginda, esan zidaten onartutako dirulaguntza ez zela emango, eta nik zenbatekoak aurreratu eta ordainketak frogatu behar nituela.

Udalak berak prozedura akats bat egin zuen, baina, modu ulertezinean, akatsa zuzendu beharrean, jaialdiaren antolatzaileei pasa zizkieten ondorioak, hau da, niri, jakinda BluVision ez dela korporazio handi bat, baizik tokiko enpresa bat eta pertsona bakarrekoa, eta ez duela gaitasun ekonomikorik dirutza horri aurre egiteko.

Zorionez, ordurako dirulaguntzen zati handi bat ordaindua zidaten, eta, horri esker, hainbat profesionalen minutak ordaindu ahal izan nituen, eta beraz, egindako lanagatik kobratu zuten, hiru faktura izan ezik: azpiegiturei zegozkienak (karpak, agertokiak, hesiak eta harmailak, besteak beste), SGAE eta nirea, guztira, 100.000 euro pasatxo.

## NORK HARTU BEHAR DITU BERE GAIN ONDORIOAK?

Alkateak eta gobernu taldeak publikoki azpimarratu zuten legea zorrotz bete behar zutela, nahiz eta, paradoxikoki, hasieratik egin ez izanaren arabera jokatu beharrean, uko egin zioten euren akatsaren kalteak konpontzeari eta nire jokabideari buruz susmoak sorrarazten utzi zuten inolako justifikaziorik gabe.

Hori dela eta, nire eta nire familiaren egoera ekonomikoa behin betiko arriskuan jartzen duen egoera larri baten aurrean nago. Nire etxea hipotekatu eta zorpetu egin beharko dut ordainketei

aurre egin ahal izateko eta mundu guztiak bere lanagatik kobratzen duela ziurtatzeko (denek, nik izan ezik, noski, nire faktura ez delako onartzen).

2019an hainbat bilera egin ziren alkatearekin eta Turismoko zinegotziarekin. Bilera horietan, irtenbideak bilatu ordez, biek kezka handia agertu zuten nire adierazpen publikoak zein izango diren, eta mespretxua besterik ez, berriz, eragin didaten itomen ekonomikoagatik.

Uler daiteke Udalean irizpide aldaketa egon zela prozedura akats bat zuzentzeko. Hau ez da Kontu hartzailearen txosten negatiboak dituzten espedienteen kasu bakarra, eta badakit Alkatetzak horiek gainditzeko modua aurkitu duela hirugarrenei kalterik egin gabe. Baina ez da hala izan kasu honetan, alderantziz baizik, amorerik ez baitu eman eta edozein irteera motaren aurka agertu baita, neureganako herra berezia erakutsiz.

#### EZKUTUKO HELBURUA: JAIALDIRIK EZ EGITEA

Azpimarratu nahi dut hemen inork ez duela diru publikoa gaizki erabili, eta ez dela egin ez den ezer ordaintzeko eskatu; administrazio eta/edo prozedurazko akats baten aurrean gaude, eta ez dut inola ere onartuko jaialdia kentzeko justifikazio gisa erabiltzerik. Izan ere, nahiz eta Sagarzazu alkateak publikoki esan eutsi nahi diola, esan dezaket ez duela horretarako inolako borondaterik: inoiz ez du Bluesaldian sinetsi eta ez du hirirako nahi. Besterik gabe, zartakoz itxi du atea.

2019an zehar, HBJ berreskuratzeko hainbat proposamen aurkeztu dizkiot Alkatetzari. Bakar batek ere ez du aldeko harrerarik izan. Azken aitzakietako bat izan da 2020rako lehiaketa publikora aterako zela, baina, gaur egun, bost hilabete geratzen direnean, ez dago oinarririk onartuta, ez eta egiteko proiekturik ere

#### BETETAKO AMETSA

Argi utzi nahi dut guztiz prest nagoela Hondarribiko hirirako jaialdia berreskuratzeko, halaxe izan da lehen egunetik, eta hala izaten jarraitzen du, zailtasunak zailtasun. Bete den amets pertsonala izan da jaialdi hau eta ez diot hiltzen utzi nahi alkate jakin baten eta bere gobernu taldearen utzikeriagatik, eraginkortasun ezagatik eta interes ezagatik.

HBJ onuragarria izan da Hondarribiko kultura, ekonomia eta proiektiorako, hiru milioi euro baino gehiagoko eragin ekonomikoa izan baitu, eta 90.000 lagun baino gehiago etorri baitira urtero. Bere kalitatea erakutsi du bluesaren arloan nazioartean dauden sari nagusietatik bi lortuta: Blues Foundation-en Keeping The Blues Alive saria eta Blues Behind The Scenes saria, European Blues Union enpresarena, azken hori sustapen eta antolaketa lanari emana, hain zuzen ere.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuet azken urte eta erdi honetan jaso ditudan elkartasun adierazpenengatik, eta hainbeste pertsonak, erakundek, artistak eta Jaialdi anaiek eman didaten arnasagatik. Bereziki, familiari eskerrak eman nahi dizkiot baldintzarik gabe eman didaten laguntzagatik. Horiek guztiek helarazten didaten energia da proiektu honetan irmo mantentzen nauena, lehen egunean bezala sinesten baitut honetan.

Carlos Malles

Hondarribian, 2020ko urtarrilaren 30ean